



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024-ko Urtarrila	
1. METAMIZOLA ETA AGRANULOSITOSI ARRISKUA	1 Jarraitu irakurtzen
2. PSEUDOEDEFDRINA: ONDORENGO ENTZEFALOPATIA ITZULGARRIAREN SINDROMEAK (PRES) ETA GARUNEN BASOKONSTRIKZIO ITZULGARRIAREN SINDROMEAK (SVCR) IZATEKO ARRISKUA MINIMIZATZEKO NEURRIAK	2 Jarraitu irakurtzen
3. LEBETIRAZETAMA ETA KLOBAZAMA: DRESS HIPERSENTIKORTASUN-ERREAKZIOA	3 Jarraitu irakurtzen
4. TRANDATE® HORNIDURAREN EGOERA EGUNERATZEA	4 Jarraitu irakurtzen
5. PRESBIDE: XURGATZAILEETARAKO BISATU-ESKAKIZUN BERRIA	5 Jarraitu irakurtzen
6. KLONAZEPAMA DUTEN MEDIKAMENTUAK ERREZETA ELEKTRONIKO BIDEZ AGINTZEA ETA EMATEA OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN	6 Jarraitu irakurtzen
7. HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN Klonazepam eta asmarako terapia inhalatu hirukoitza: preskribatzeko eta emateko baldintzen aldaketa	7 Jarraitu irakurtzen
8. ARGITALPEN INTERESGARRIAK SEFAPen infografia berria: Alkohola edan dezakezu medikamentuak hartzen ari bazara?	8 Jarraitu irakurtzen
9. HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK	9 Jarraitu irakurtzen

1	METAMIZOLA ETA AGRANULOSITOSI ARRISKUA
2023ko abenduaren 1ean, AEMPSek segurtasun-ohar bat argitaratu zuen, 2018ko informazio-oharean agranulozitosi arriskua prebenitzeko edo haren ondorioak minimizatzeko egindako gomendioei eutsiz. Metamizolaren eta agranulozitosi arriskuaren arteko erlazioa berriz aztertu ondoren, ondorioztatu du ez dagoela segurtasun-profila aldatzeko moduko aurkikuntza berririk.	

BIFAPen (Esparru Publikoko Ikerketa Farmakoepidemiologikorako Datu-basea) datuekin egindako ikerketa farmakoepidemiologiko batean, behin-behinean baieztatu da agranulozitosiaren intzidentzia oso txikia dela metamizolarekin tratamendua hasten duten pazienteen artean (1-10 kasu milioi erabiltzaileko) Espainiako praktika kliniko errealearen adierazgarri den populazioan, hainbat astez tratamenduan egon diren pazienteak barne.

Ikus MUH oharra (FV), 2023/09 [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

PSEUDOEFEDRINA: ONDORENGO ENTZEFALOPATIA ITZULGARRIAREN SINDROMEAK (PRES) ETA GARUNEKO BASOKONSTRIKZIO ITZULGARRIAREN SINDROMEAK (SVCR) IZATEKO ARRISKUA MINIMIZATZEKO NEURRIAK

Pseudoefedrina duten medikamentuak erabili ostean PRES eta SVCR sindromeen kasuak jakinarazi dira berriki Europar Batasunean.

Eskura dagoen ebidentzia ebaluatu ondoren, EMAren Farmakozaintzarako Arriskuak Ebaluatzeko Batzordeak gomendatu du pseudoefedrina ez erabiltzea hipertentsio larria edo kontrolatu gabea duten pazienteetan, ez eta giltzurrun-gaixotasun larria (akutua edo kronikoa) edo giltzurrun-hutsegitea duten pazienteetan ere.

Gainera, pazienteei ohartarazten zaie berehala etetzeko tratamendua, eta PRES edo SVCR sintomak garatzen badituzte asistentzia sanitarioa bilatzeko. Hauek dira sintoma horiek: bat-batean agertzen den zefalea bizia, trumoi gisako zefalea, goragalea, gorakoak, nahasmendua, konbultsioak eta/edo ikusmen-alterazioak.

Hauek dira pseudoefedrina duten medicamentuak :

Cinfatos complex[®] susp. oral, **Cinfatos descongestivo**[®] sol. oral, **Clarityne plus**[®] 10 mg/240 mg comp. lib. prolongada, **Frenadol descongestivo**[®] cáp., **Gelocatil gripe con pseudoefedrina**[®] comp., **Grippal**[®] con pseudoefedrina y dextrometorfano cáp. duras,

Iniston mucosidad y congestión[®] 20 mg/ml + 6 mg/ml jarabe, **Iniston tos y congestión**[®] jarabe, Lasa con codeína[®] 6 mg/ml + 2 mg/ml + 0,4 mg/ml sol. oral, **Narine repetabs**[®] 5 mg/120 mg comp. lib. prolongada, **Pharmafren**[®] 200 mg/30 mg cáp., **Pharmatusgrip**[®] polvo para sol. oral, **Reactine cetirizina/pseudoefedrina**[®] 5 mg/120 mg comp. de lib. prolongada, **Respidina**[®] expectorante junior 6 mg/ml + 20 mg/ml sol. oral, **Respidina**[®] 120 mg comp. de lib. prolongada, **Rinobactil**[®] 10 mg/120 mg cáp. duras de lib. modificada, **Rino-ebastel**[®] 10 mg/120 mg cáp. duras de lib. modificada, **Stopcold**[®] 5 mg/120 mg comp. de lib. prolongada, **Termalgin resfriado**[®] 500 mg/30 mg polvo para sol. oral, **Vincigrip**[®] cáp. duras, **Vincigrip forte**[®] granulado para sol. oral sabor cacao-naranja, **Virlix plus**[®] comp. de lib. prolongada.

Ikus MUH oharra (FV), 10/2023 [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

LEBETIRAZETAMA ETA KLOBAZAMA: DRESS HIPERSENTIKORTASUN-ERREAKZIOA

FDAk ohartarazten du konbultsioen aurka erabiltzen diren lebetiracetam (**Keppra**[®], **Laurak**[®], **Tirbas**[®], **Levetiracetam EFG**) eta klobazam (**Noiafren**[®]) medikamentuek DRESS hipersentikortasun-erreakzioa eragin dezaketela, larria baina ez oso ohikoa. DRESSak sukarra, larruazaleko erupzioa, gongoil linfatikoen hantura edo lesioak eragin ditzake giblean, giltzurrunetan, biriketan, bihotzean edo pankrean.

DRESSen lehen sintomak, hala nola sukarra edo gongoil linfatiko handituak, erupziorik ikusi ezin denean ere ager daitezke. Hori ez dator bat medikamentu horiekin gerta daitezkeen eta erupzioak hasieratik izaten diren larruazaleko beste erreakzio larri batzuekin, hala nola Stevens-Johnson-en sindromea eta nekrolisi epidermiko toxikoa.

Ikus oharra [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 | **TRANDATE® HORNIDURAREN EGOERA EGUNERATZEA**

AEMPSek, 2023ko martxoaren 13ko [informazio-ohar](#) batean, jakinarazi zuen murriztu egin dela **Trandate®** (labetalol) konprimatuen hornidura haurdunaldian hipertentsioa duten eta jada labetalol konprimatuarekin tratamenduan dauden pazienteentzat, baita paziente horien tratamendu berrietarako ere, behar bezala erantzuten ez bazuten edo tratamendu alternatiboa onartzen ez bazuten.

Medikamentua Egoera Berezietako Medikamentuen Zerbitzuaren bidez banatzen ari da, nitrosamina-ezpurutasunak eraginda ez dauden unitateen eskuragarritasun mugatuagatik.

Nitrosaminaren eraginpean ez dauden medikamentu honen unitate erabilgarriak baloratu ondoren, uste da ez dela egokia hasieran hartutako murrizketari eustea, eta haren erabilera handitu egin daiteke haurdunaldiko edozein hipertentsio-egoera klinikotan, tratamenduarekin jarraitzea edo tratamendu alternatiboa ez onartzea baldintza izan behar gabe.

Haurdunaldiko hipertentsioa ez den indikazio bat duten pazienteentzat: labetalol ez den beste tratamendu bat preskribatu beharko da.

Ikus ICM (CONT) oharra, 09/2023 [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 | **PRESBIDE: XURGATZAILEETARAKO BISATU-ESKAKIZUN BERRIA**

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, Osasun Sailak eguneratu egin du Ikuskapen medikoek xurgatzaileei bisatua emateko eskakizuna.

Horretarako, [preskripzio berrietan](#), Osabide APn edo Osanaian 4 balorazio-eskala hauetako bat erregistratu behar da, gehienez ere 6 hilabeteko antzinatasunarekin, bisatua eskatzen den egunetik aurrera:

- Barthel eskala: gorozki edo gernu-kanporatzeen indizea: 0 edo 5 puntu.
- Larritasun indizea (ISI): ≥ 3
- Mikzioaren erregistroaren orri anbulatorioa: ≥ 1.800 ml nahi gabe ihes egitea
- Ordubeteko Pad Testa ≥ 10 gramo

Aldaketa horrek pertsonen egoeran aldaketaren bat detektatzea erraztu dezake.

Gogorarazten da xurgatzaile kopuruaren preskripzioa pertsonen uneko beharretara egokitu behar dela, eta finantzatzen den gehieneko xurgatzaile kopurua 4 dela (gehienez gaueko super 1).

Esteka interesgarriak:

- I-botika fitxa, pazienteentzako xurgatzaileei buruzko informazioa duena, [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

KLONAZEPAMA DUTEN MEDIKAMENTUAK ERREZETA ELEKTRONIKO BIDEZ AGINTZEA ETA EMATEA OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, klonazepama duten medikamentuak (**Clonazepam** EFG eta **Rivotril®**) duten medikamentuak errezeta elektroniko bidez baino ezingo dira agindu eta eman OSNan.(Osasun sistema nazionala) Helburua da klonazepamaren erabilera desegokia edo abusua saihestea osasun publikoko arazo bat sor dezakeenean, eta fitxa teknikoetan baimendutako indikazio eta posologietako erabilera optimizatzea.

MUFACE, ISFAS eta MUGEJU mutualitateetarako eta OSNrako, paperezko errezeta informatizatuak erabili behar badira, preskripzioaren eta dispentsazioaren kontrola eta jarraipena egiteko beharrezko neurriak hartuko dira.

Informazio-oharra [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira [2024ko urtarrilako](#) berrikuntzak

2024ko urtarrila		
	Klonazepama	Rivotril® 0,5 eta 2 mg konp., Rivotril® 1 mg/ml anpoila, Klonazepama EFG 0,5, 1 eta 2 mg konp.: 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, klonazepama duten medikamentuak duten medikamentuak errezeta elektroniko bidez baino ezingo dira agindu eta eman OSNan.
	Asmarako terapia inhalatu hirukoitza	Urtarrilaren 1etik aurrera, asma tratatzeko terapia inhalatu hirukoitzeko medikamentuak bisatzeko beharra kendu da: Enerzair® Breezhaler eta Zimbus® Breezhaler 114/46/136 mcg: Indakaterola/glikopirronio bromuroa/mometasona Trimbow® 172/5/9 mcg: Beklometasona/formoterola/glikopirronio bromuroa

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispentsazio-baldintzak murriztea

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispentsazio-baldintzak zabaltzea

2020ko urtariletik aurrerako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

SEFAPen infografia berria: Alkohola edan dezakezu medikamentuak hartzen ari bazara?

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) alkohola medikamentuekin batera kontsumitzeari buruzko infografia berri bat argitaratu du.



Infografía esteka hauetan dago eskuragarri:

- [Pdf formatu interaktiboa](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9 HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- **Miflonide Breezhaler®** 400 mcg, inhalagailu 1 + 60 kapsula (Budesonida)
- **Oflovir®** 200 mg, 14 konp. (Ofloxazina)
- **Semonic®, Ferbrain®** 150 mg 30 konp. (Setralina)
- **Nitoman®, Tetrabenazina Aristo®, Sun®** 25 mg, 112 konp. (Tetrabenazina)
- **Adisocol®** 150 eta 300 mg konp. (Azido urtsodesoxikolika)
- **Gentamicina colircusi®** 3 mg/ml kolirioa (Gentamizina)
- **Renitecmax®** 20/6 mg, 28 konp. (Enalapril/Hidroklorotiazida)
- **Tediprima®** 160 mg, 16 kapsula (Trimetoprima)
- **Lioresal®** 10 mg, 30 konp. (Baklofenoa)
- **Konakion®** 10 mg/ml ahotiko soluzioa, 5 anpoila 1 ml (Fitomenadiona)
- **Kreon®** 35.000 U, 250 kapsula (Pankreatina)
- **Aldactacine®** 25/15 mg, 40 konp. (Espironolaktona/altizida)
- **Dinisor Retard®** 180 mg, konp. (Diltiazem hidrokloruroa)
- **Glucobay®, Acarbosa Tecnigen®, Viatrix®** 100 mg, 100 konp. (Akarbosa)
- **Colirofta Fluotest®** 1 flaska 3 ml (Oxibuprokaina/fluoreszeina)
- **Lexatin®, Bromazepam Kern Pharma®, Normon®, Pensa®, Stada®** 1.5 mg, 30 kapsula (Bromazepam)
- **Parlodel®** 5 mg, 50 kapsula (Bromokriptina)
- **Tamiflu®** 30, 45 eta 75 mg, 10 kapsula eta **Tamiflu®** 6 mg/ml soluzioa (Oseltamibirra)
- **Equasym®** 40 mg, 30 kapsula askatze luzekoa (Metilfenidatoa)

Atzerriko medikamentuak

Serecor 300 mg kapsula ask. luzekoa (hidrokinidina): abendutik aurrera, atzerriko medikamentu gisa dago eskuragarri. Unitate gutxi daudenez, desfibriladore automatiko inplantagarria duten pazienteetan soilik erabiltzen da, talka elektrikoa prebenitzeko, eta hori txosten mediko bidez justifikatu beharko da. Preskripzioa Presbiden aktibo badago, ez da errezetarik aurkeztu behar.

Alferrikako joan-etorriak saihesteko, komeni da erabiltzaileek Arabako Osasun Lurralde Ordezkaritzako Farmazia inspektoria deitzea (Olagibel kalea 38 ; 945 017104/05). Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Depakine Crono®** 500 mg, 100 konp. askapen luzekoa (Sodio balproatoa / Azido balproikoa)
- **Diane diario®** 2 mg/0,03 5mg, 28 konp. (Ziproterona/Etinilestradiola)
- **Escitalopram Viso®** 5 mg, 28 konp. (Eszitaloprama)
- **Daktarin®** krema 40 g (Mikonazola)
- **Semoni®** 200 mg, 30 konp. (Setralina)
- **Brimvera®** 2 mg/ml, 30 ontzi unidosi 0,35 ml, **Bripio®** 2 mg/ml kolirio soluzioa 60 monodosi, 0,35 ml (Brimonidina)
- **Catapresan®** 0,150 mg, 30 konp. (Klonidina)
- **Auxina E-200 UI**, 20 kapsula bigun (Todo-alfa-tokoferola)
- **Dicloabak®** % 0,1 kolirioa 10 ml; **Diclofenaco Lepori®** % 0,1 kolirio 5 ml; **Voltaren®** % 0,1 kolirio 5 ml (Diklofenakoa)
- **Solsint®** 13 mcg ahotiko soluzioa, 30 ontzi unidosiak, **Solsint** 50 mcg ahotiko soluzioa ontziak unidosiak (Lebotiroxina sodikoa)
- **Oxicodona/naloxona Stada®** 30 mg/15 mg 56 konp. ask. luz.; **Tanonalla®** 30 mg/15 mg 56 konp. ask. luz.; **Oxicodona/naloxona Teva®** 30 mg/15 mg 56 konp. ask. luz.; **Taioma plus® EFG** 30 mg/15 mg 56 konp. ask. luz.; **Duoxona®** 30 mg/15 mg konp. ask. luz. (Oxikodona/naloxona)
- **Ferplex®** 40 mg, 20 bial (Proteinsuccinilato ferrikoa)
- **Septin Pediátrico®** 8 mg/40 mg/ml, ahotiko suspentsioa (Sulfametoxazola/Trimetoprima)
- **Besitran®** 20 mg/ml, 60 ml tanta (Sertralina hidrokloruroa)
- **Edunix®** 4, 8 eta 32 mg, 30 konp. (Hidromorfona)
- **Hodernal®** 800 mg ahotiko soluzioa, 300 ml (Parafina likidoa)
- **Triapin®** 5 mg/5 mg konp. ask. luzekoa, 28 konp. (Fenidipino/Erramiprila)
- **Synalar® ondestetikoa sinplea**, krema 30 g eta 60 g (Fluozinolona azetonidoa)

Medikamentuen hornikuntza eza:

Presbiden, «Hornikuntzarik eza» botoia eskuragarri dago, «Preskripzioen kontsulta» pantailaren beheko aldean, hornikuntzarik ezari buruzko informazio erabilgarriarekin.



[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Amaia Alzaga, Arantza Hernández, Javier Martínez eta Inés San José



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da